

Izarne Sarasolarentzat denboraldi ahaztezina





AURKIBIDEA

Iritzia Itzea Urkizu **3**
Elkarrizketa Garikoitz Goikoetxea,
 organoa jotzea afizio **4-7**
Elkarrizketa Izarne Sarasola,
 mailaz maila gora **10-16**

Baso Ertzetik

Jon Ander Galarraga **18-19**

Iritzia Alex Padilla **20**

Iritzia Olatz Peñagarikano **21**

Agenda 22-25

Erreportajea

Gaurko euskal eskultura **26-29**



Azaleko irudia
 Imanol Garcia Landa

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzaile eta
 lana euskaraz

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.



Aztarrika



**ITZEA URKIZU
ARSUAGA**
INAUTERIZALEA
URTE OSOAN

Tira, amaitzera doa ikasturtea. Kito, bale, listo, papo. Has ninteke esaten konturatzerako joan dela eta hegan doakigula denbora, baina uste dut ezetz: gu joaten gatzazkio hari. Denbora egonkorra eta ziklikoa da; tapa-tapa, tik-tak, beti berdin. Gu, berriz, izaki likidoak gara, denbora horren zirrikitu guztietara iritsi nahian, etengabeko irristan. Aitor dezadan, beraz, irailetik honako bidea labain-dantza bat izaten ari dela niretzat.

Bezperatik hasten da gurpil-zorua, bueltaka. Ea bihar zer moduz. Ea ninja baten abileziaz jaiki eta logozan jarraitzen duen. Ea titia eman eta gosaltzeko beste ordu-laurdentxo bat uzten didan. Ea bera esnatzerako dena prest daukadan. Ea agurtzen dudanean pozik geratzen den. Haien erritmo biologikoak inola ere ulertzen ez dituen moldeetan sarrarazten baititugu haurrak. Haiek ahoz errepikatu bai, baina buruz irudikatzen ez duten norabait joan ahal izateko: «*Amatxo lanea dijoa*». Eta, horrela, egunero: egun guztiak baitira beste baten bezpera.

Berez bezala gertatzen diren ekintza horien sokak gorpuzten du izen bat: estresa. Emozionala hasieran, eta fisikoa ere bai gero, asteen eta hilabeteen poderioz. Eta, bat-batean, gurpilaren inertziari balazta jarri nahi eta ezinean sumatzen duzu zeure burua, barrurantz orro egiten eta sukalde-gainari amorru-kolpe bat ematen, maiatzeko goiz batean. Gainerako gurasoek hori guztia airoso egiten dutela pentsatzen eta, ondorioz, sentitzen ari zaren hori guztia dramatismo hutsa dela erdiesten. Irailean erositako motxila hori kulpaz betetzen.

Duela bi urte ama izan nintzenetik gehien entzun dudan aholkuetako bat da, denbora behar bezala aprobetxatzeari erreferentzia egiten diona. Guztia

ahazten dela, eta dastatzeko, gozatzeko, xurgatzeko haurra-ekin bizi dudan momentu bakoitza. Hori bai, niretzat ere

denbora hartzeko, ezinbestekoa dela gero lanean eta zaintzan gogoa bilduta aritzeko. Ahal bada tarte bat eskaintzeko ama izan aurretik afizioz egiten nituen kontuei, ez naizela ama bakarrik. Eta bikote-harremana ere ukenduaz goxatzeko, gure artekoa ez dadin enpresa baten kudeaketa hutsa izatera heldu.

Bakoitzak bizi du bere gurpil-zorua; hau guztia nire

«Gainerako gurasoek hori guztia airoso egiten dutela pentsatzen eta, ondorioz, sentitzen ari zaren hori guztia dramatismo hutsa dela erdiesten. Irailean erositako motxila hori kulpaz betetzen»

nekean aztarrika ibiltzea baino ez da. Baina uste dut badirela labainkera horretatik oso gertu egon litezkeen pertsonak, gertatzen zaien hori haien bizipen isolatua dela pentsatzen dutenak. Erru eta estres hori noizbait gorpuztu dutenak, ume batez erditu edo ez. Gure dantza ero honek ahotsak eta belarriak eta bersarkadak behar ditu; sareak, enpatiazko zubiak. Eta Oihana Iguaranek eta Amañur Luluagak modu ikaragarrian eraiki dituzte, *AMArAun* ikuskizunean, gure zamak, gure mahai-gainetan eman beharreko kolpeak eta gure sokak kantatuz eta dantzatuz. Zirrikitu bat, denbora honetatik arnasa hartzeko.



«ASKOK PENTSATUKO DUTE ORGANOA JOTZEA, FRIKIA IZATEAZ GAIN, OSO ZAILA DELA»

GARIKOITZ GOIKOETXEA ETXEBERRIA
ORGANO-JOTZAILEA

Oso gazte hasi zen Garikoitz Goikoetxea Elduaingo elizan organoa jotzen, eta gaur egun, Oñatiko Arantzazuko santutegian ere jotzen du; gainbeheran doan ofizioa izan arren, «gozatu» egiten duela aitortu du.

Josu Artutxa Dorronsoro Elduain

Amonaren anaiak jotzen zuen organoa Elduaingo elizan. Hari ebakuntza bat egin behar ziotela eta, 13 urterekin jo zuen lehen aldiz Garikoitz Goikoetxeak (Elduain, 1989) organoa. Herrian ez ezik, herritik kanpo ere jotzen du, eta oso zaila egiten zaio jasotzen dituen eskaerei ezezkoa ematea.

Nola heltzen da bat organo-jotzaile izatera?

Nire kasuan, bi aldagai uztartzen dira. Batetik, Tolo-sako musika eskolan piano ikasketak egin nituen. Bestetik, nire birraitona eta nire amonaren anaia *organistak* ziren Elduaingo elizan. Herri askotan ez dago organoa jotzen duen inor, baina Elduainen kasuan beti egon da norbait; azken hamarkadatan, gainera, gure familiako senideak izan dira organo-jotzaileak. Halako batean, amonaren anaia ebakuntza egin behar ziotenean, egoerak hala behartuta, organoa jotzen hasi nintzen. Ebakuntza egin ondoren, amonaren anaiak ere jarraitu zuen organoa jotzen, eta bion artean aritzen ginen, baina gaur egun ni bakarrik aritzen naiz.

Zenbat urte zenituen orduan?

13. Birramona zenak sarri hala esaten zidan: «Hi gazte hasi hintzen, baina hire birraitona gazteago». Hura 11 urterekin hasi zen organoa jotzen. Birraitonak, organoa ez ezik, soinua ere jotzen zuen. Birramonak, beraz, senarra, semea eta birloba ezagutu zituen organoa jotzen. Deskuiduan,

«Hasieran oinak ez zitzaizkidan pedaletara heltzen, eta hatzekin soilik jotzen nuen»

elizkizun batera hiruretako inor joan ezin bazen, oso gaizki pasatzen zuen, buruari ezartzen zion ardurgatik. Elizkizun bat zegoenean, organoa jotzea etxe-ko obligazio bat zela sentitzen zuen; kezka hori izaten zuen.

Aurrez pianoa jotzen ikasi zenuela esan duzu. Bietatik, zein instrumentu da errazagoa?

Gaur egun esango nuke organoa jotzea errazagoa zaidala, urteak direlako pianoa jotzen ez dudala. Bataren eta bestearen artean, ordea, badira desberdintasunak. Organoak pedalak ditu, eta hatzekin ez ezik, oinekin ere jo behar da, batez ere ezker oinarekin. Hori esango nuke dela zailtasun handiena. Bestetik, konplexua da baita ere organoak dituen soinu-tinbre edo erregistroak ondo maneiatzen jakitea. Pianoak ez duen abantaila bat ere badu: bolumena edo intentsitatea, tekla suabeago edo indartsuago zapaldu, berdina dela; organoaren azpialdean dagoen pedal batek markatzen du bolumena altuagoa edo baxuagoa izatea.

Eta hasierako urte haietan, noizbait pentsatu zenuen gaur egun jotzen jarraituko zenuela?

Ez. Egoerak hala behartuta hasi nintzen. Gainera, hasieran, hatzekin soilik jotzen nuen organoa, oinak beheko pedaletara ez zitzaizkidalako heltzen. Denborak aurrera egin ahala, jotzen jarraitu nuen, eta azkenean ikasi nuen

oinekin ere jotzen. Ia hogei urte daramatzat organoa jotzen.

Zer behar da 'organista' izateko?

Abesti gehienak partitura-rekin jotzen ditut. Hala ere, beharrezkoa da pianoa edo teklatura jotzen jakitea, baita belarri ona izatea ere.

Beste norbait kantuan ari denean jo ohi dugu organoa, eta askotan tokatzen da ezagutzen ez duzun apaizen batekin aritzea. Kantuan hastean, akaso ez da ohiko tonuan hasten, eta lana izaten da bere tonua harrapatzea organoarekin.

Urteek aurrera egin ahala hobetzen da teknika hori, eta organo batzuek, gainera, badute abantaila bat: transposiziorako botoiak izaten dituzte, tonu aldaketetarako.

Elduaingo elizan soilik aritu izan zara?

Esan daiteke hau dela nire destinoa. Hala ere, beste herri batzuetara joatea egokitzen zait tarteka, Berastegira eta Berrobira, batez ere.

Nolako organoa da Elduaingo elizakoa?

Oso organo txikia da. Ez dut uste eskualdean hau bezain organo txikirik dagoenik; Euskal Herrian gutxi izango dira hau bezain txikiak edo hau baino txikiagoak. Teklatu bakarrekoa da, sei erregistro edo soinu-tinbre bakarrik ditu, eta beraz, izango dira ikasteko hau baino organo zailagoak. Tolosaldearen kasuan, herri txiki askotan dago organoa, eta hori, Euskal Herrian nahiz bertatik kanpo, ez da batere ohikoa.

Txikia izateaz gain, gaztea ere bada, ezta?

1931ko organoa da, eta gutxi izango dira berriagoak eskualdean. Istorio bitxi bat ere badu. Berez, ez zen eliza honetarako. Amezua etxeko organoa da, Euskal Herriko asko bezala, eta Bartzelonako komentu batera eraman behar zuten. Hala ere, arazoren bat



«Arantzazuko organoa ikusgarria da; hiru teklatu eta hirurogei erregistro ditu»

izan zuten. Akaso ez zuten behar adina diru bildu, edo auskalo, bizi-lagunen bat ohartu izango zen nonbait organo bat sobran zegoela, eta hona ekarri zuten. 12.000 pezeta ordaindu zituzten herri-tarrek orduan.

Noiz jotzen duzu organoa?

Ohikoez aparte, batez ere bi eliz-kizun mota izaten dira: hiletak eta ezkontzak. Hiletak gehiago ezkontzak baino. Halakoetan tokatu izan zait beste herri batzuetara ere joatea. Ahoz ahokoa ere izaten da askotan, eta maiz deitu izan dida-

te organoa jotzera joateko. Hiletetan, ingurukoren bat edo lagunaren baten senidea hiltzean, saiatzen naiz jotzen.

Orain, gainera, Arantzazuko santutegian (Oñati) ere jotzen duzu, ezta?

Bai. Kasualitate bat baino gehiago uztartu dira. Arantzazun bertan senide bat genuen, aitonaren familiakoa: Juan Zelaia orexar frantziskotarra. Arantzazun bizi zen eta duela gutxi hil zen. Umea nintzetik harremana izan dut Arantzazurekin; askotan joan izan gara, baina nire kasuan, mezan esaten zutena baino interesgarriagoa zen bertan entzuten zen musika: organoa, abesbatza... Korura igotzen nintzen, organoa nola jotzen zuten ikustera. Instrumentu hura ikusgarria da; hiru teklatu eta ia hirurogei erregistro ditu.

Garai hartan, Jose Luis Zurutuzak jotzen zuen, eta Pello Zabala aldarean egoten zen. Zurutuzak errieta egiten zidan behin baino gehiagotan, aldarera begiratu behar nuela esanez. Urteek aurrera egin ahala, Zurutuza gaixotu egin zen, eta Pello hasi zen organoa jotzen; haren ondoan ere egoten nintzen. Aurre-rago, Pello ere gaixotu zen, eta orduan, ospakizun

batzuetan hara joan eta organoa jotzea egokitu zitzaidan. Aurrez, Juan Zelaia senidearen heriotza gertatu zen, eta Arantzazuko nagusiari baimena eskatu genion hiletan organoa jotzeko; nik jo nuen elizkizun hartan. Joan den otsailean, berriz, Pello zendu zen; denbora zeraman gaixo, baina ezustean harrapatu gintuen. Haren hileta elizkizunean eta hurrengo batzuetan organoa jotzen aritu izan naiz. Orain, hala ere, Mikel Santiago fraidea ari da Arantzazun organoa ikas-



«Gipuzkoako organo-ondarea Europako handienetakoa da»

ten, eta gaur egun, igandeetan bera aritzen da; ni zenbait elizkizunetan joaten naiz, laguntza modura.

Eguneroko lana da zurea, ala soilik egun jakin batzuetakoa?

Baldin eta zein aldetatik begiratzen duzun. Oporrak egin behar ditudanean, ez dut arazorik izaten oporrrak egiteko. Hiletan kasuan, oso zaila egiten zait jasotzen ditudan eskaerei ezezkoa ematea; beti ez da posible izaten, baina beste konpromisorik ez badut, jotzera joaten naiz. Jendea esker onekoa izaten da, eta familia askok garrantzia ematen diote hiletako musikari.

Eta nolako esperientzia da?

Askok pentsatuko dute organoa jotzea, frikia izateaz gain, oso zaila dela. Bada, ez dakit. Niri behintzat trikitia jotzea ez zait errazagoa iruditzen, hauspoa zuk maneiatu behar duzulako. Organo handien kasuan, zure esku izaten duzu orkestra oso bat, sokazko nahiz haizezko instrumentuen erregistroak izaten dituztelako, eta beraz, nahi adina konbinazio egiteko

aukera ematen dutelako. Ondorioz, orkestra batera gehien gerturatzen den instrumentua da.

Elizan, gainera, ezkutuan dagoen norbait izaten da organo-jotzailea.

Bai. Bikotekidearekin oporretara joan eta eliza batera sartzen garenean,

bera beti geratzen da aurrera begira. Nik, berriz, pauso batzuk aurrera egin eta atzera begiratzen dut.

Mila saltsatan aritzen zara. Hala ere, askok ziur ez zutela zure alderdi honen berri.

Inguruko denek jakingo dutelakoan nago, eta ez dakitenek, orain jakingo dute. Herri batzuetan, *organista* esanda ezagutzen naute.

Ezohikoa da organoa jotzea, batez ere Elizari oso lotua dagoelako. Gain behera doa, oso nabarmen. Gainera, ikasteko eskaintza ere oso urria da. Nik piana ikasi nuen Tolosan, eta gero autodidakta xamarra izan naiz.

Gustura aritzen zara?

Bai, bestela ez nintzateke arituko. Gozatu egiten dut.

Jarraitzeko asmoa duzu?

Ez dut uste urte asko geratzen zaizkidanik. Ez zait iruditzen 15-20 urte barru herri askotan elizkizunik izango denik; apaizak faltako dira, baita herritarrak ere, eta beraz, sobran egongo gara. Horri lotuta, badut kezka handi bat: zer gertatuko da elizetako ondare artistikoarekin? Nor egingo da horren kargu? Gure organo ondarea oso garrantzitsua da. Eta uste dut nabarmendu behar dela kontu bat: ondare hori herriarena da, eta hari dagokio.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik (San Esteban, 20. Tolosa). Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.



Etorkizunari begiratzen diogu



ETE laguntzak

2022

ayudas PYME

Oso ETEzaleak gara!

Euskadi, auzolana



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

+75 laguntza-programa

+600 milioi euro

Informa zaitez

www.euskadi.eus/ekogarapena · www.spri.eus/ekogarapena

2 KM
KORRIKA



300 M
IGERIAN

EMAKUMEZKOEN TRIATLOIA

EKAINAK 25 (LARUNBATA) 15:00, DONOSTIAN

FEDERATU ETA EZ FEDERATUENTZAT

8 KM
BIZIKLETAN



INFORMAZIO GEHIAGO: comunicacion@atletico-ss.org - 652 75 45 58

IZEN-EMATEAK
ROCKTHESPORT-en



ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)

TEL: 943 65 29 64

ISASTEGI.COM



Menpekotasuna duten adin-nagusikoen Gipuzkoako zaintzaileentzat aholkularitza saioa

Menpekotasuna duten adin-nagusiko pertsonen zaintza jorratuz emango zaio amaiera Tolosako Jabetze Eskolaren barruko 'Guretzako' atalaren udaberriko programari.

Menpekotasun Legea dela-eta, zaintza lanean ari den pertsona orok ziurtagiri profesionala izan beharko du aurrerantzean, eta nahitaez, Gipuzkoan. Esperientzia oinarritutako habilitazioa dute askok, baina kasu batzuetan habilitazio hori behin-behinekoka da.

Ziurtagiria lortzeko epea aurtengo abenduaren 31n amaitzen denez, hori lortzeko informazioa eta orientazioa emateko aholkularitza saio bat antolatu dute, doakoa, Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak eta Tolosaldea Garatzeneko Aniztasun Sailak elkarlanean.

Saio honen helburua doako informazioa, orientazioa eta aholkularitza ematea da. Behin-behinekoko gaitzuntza duten eta menpekotasuna duten adin-nagusiko Gipuzkoako zaintzaileei bideratutako saioa da, *Ika-si zaintzeko* kanpainaren barruan kokatua dago.

Gizarte-erakundeetan gizarte eta osasun-arreta emateko Profesionaltasun Ziurtagiria lortzeko ikaske-ten eduki eta baldintzen inguruko informazioa eman- go da saioan, Bidez Bide elkarteko Soraya Ronquillo- ren eskutik.

ZAINZAILEA ZARA EDO GERTUKO NORBAITEN ZAINKETARAKO NORBAIT KONTRATATUA DUZU? EMAIOZU SAIO HONEN BERRI!

Eguna: Ekainak 3, ostirala.

Lekua: Tolosako kultur etxea.

Ordutegia: 17:00-19:00.

Saioaren hizkuntza: Gaztelera.

Matrikula: Doan.

Informazio gehiago:

migrazioa@tolosaldea.eus / 646 05 70 80.

berdintasuna@tolosa.eus / 943 67 03 83.





«NIRE AMETSA EGIA BIHURTU DA»

IZARNE SARASOLA
FUTBOLARIA

Realearen jokalaria ibartarrak denboraldi honetan bizitu duena «ikaragarria» izan dela dio, eta nabarmendu du bizipen horiek hogeitaz urte bakarrik izanik bizitu dituela. Realaren lehen taldeko jokalaria izatea txikitatik zuen ametsa izan da, eta hori bete du.

Imanol García Landa Ibarra

Denboraldi oso berezia izan da Izarne Sarasola (Ibarra, 2002) futbol jokalariaentzat. Realaren bigarren taldeko fitxarekin hasi zuen, baina berehala lehen taldera igo eta bertan geratu da. Lehen aldiz lortu du Realak Txapeldunen Ligarako sailkatzea, eta lorpen horren parte izan da Sarasola. Gainera, bi urterako sinatu du Realaren lehen taldearekin.

Txapeldunen Liga jokatu duzue datorren denboraldian. Lortu duzue helburua.

Denboraldi hasieran inork ez zuen konfiantzarik guman, aldaketa asko izan baitziren aurreko denboralditik. Baina partidak irabazten joan ahala, guk argi genuen gure helburua bigarren geratzea zela, eta nahi-ko sufrituta, baina azkenean lortu dugu helburu hori.

Nola bizitu duzue aldagelan denboraldiaren azken zatia?

Esan bezala, inork ez zuen espero hain denboraldi ona egitea. Baina gure buruarengan konfiantza genuen, eta azken partida hauetan argi genuen helburua lortuko genuela. Egia da presioa nabaritzen zela, entrenamenduetan-eta tentsioa zegoela, baina jakin dugu aurrera eramaten, eta dena ondo atera da.

Zer suposatzen du taldearentzat lorpen horrek?

Historia egin dugu, eta guretzat sekulakoa da. Bai klubarentzat, bai jokalariaentzat, bai entrenatzailearentzat. Oso harro gaude denak, eta oso pozik. Hogei urterekin hau bizitzea ikaragarria izan da, eta ahaztuko ez dudana esperientzia bat.

Nola bizitu duzu zuk zure denboraldia?

Argazkiak: **REAL SOCIEDAD**



Nik berez beheko taldeko fitxa izan dut, baina San Mamesen jokatu nuenetik dena goiko taldearekin egin dut, eta nahiz eta lehen urtea izan, uste dut lehen taldean ondo egokitu naizela. Askok lagundu didate bai jokalariek, bai entrenatzaileak, denek orokorrean, eta oso gustura sentitu naiz. Lehen esandakoa, hogeitaz urterekin hau bizitzea izugarria izan da.

San Mamesen egin zenuen debuta, beraz. Noiz izan zen zehazki?

Denboraldiko bigarren partidari izan zen. Nire postuan jokatzen duena, Nuria, lesionatuta zegoenez, jokatzea tokatu zitzaidan. Partida on bat egin nuela uste dut, eta hortik aurrera esan daiteke Nataliak [Natalia Arroyo entrenatzailea] nigan konfiantza izan duela, eta minutu dezente jokatu ditut lehenengo urtea izateko.



Sekulako denboraldia egin duzue, eta zuk, gainera, hasiera batean ez zenuen espero horren parte izatea.

Ba ez, egia esan. Udan izan ziren aldaketekin, inork ez zuen espero, eta nik ere ez nuen espero hainbeste parte hartze izatea lehen taldearekin. Azkenean txikitatik nire helburua hau izan da, eta ikusten da pixkana lortu dudala. Futbola txikitatik gustatu izan zait, eta nire betiko ametsetako bat izan da lehen taldera iristea, eta hori lortu dut.

2018an Tolosa CF-tik Realaren bigarren taldera joan zinen, 16 urterekin. Nola oroitzen duzu une hori?

Txikitatik Tolosan jokatu dut, eta noizbehinka joaten ginen torneoak jokatzen Realarekin. 2018an Realaren bigarren taldea sortu zenean bertara joan nintzen, eta bertan eman ni-

«Ez nuen espero hainbesteko parte hartzea izatea lehen taldearekin»

tuen hiru denboraldi. Azken hau lehen taldean egin dut. Oso gustura egon naiz orain arte, eta espero dut horrela jarraitzea.

Eta zer suposatu du bigarren taldetik lehen taldera salto egiteak? Alde handia dago?

Aurreko urtean tarteka igotzen nintzen entrenatzera, eta egia da gehiago kostatzen zitzaidala erritmo aldetik eta baloiarekin nola jokatu-eta. Baina aurtengo honetan denboraldiaurrean nahiko azkar egokitu naiz, eta hortik aurrera nahiko ondo moldatu naiz, bai erritmo aldetik, bai fisikoki... Orokorrean ondo egokitu naizela esan daiteke.

Bigarren taldeak Tolosa CF-ko lehen taldea izan du aurkari 1. Maila Nazionalean.

Bai, horrela da. Aurreko urtean ere aurkari izan ginen, eta beti egin dit ilusioa Tolosaren aurka jokatzeak. Denboraldi honetan ez dut aukera hori izan, baina partida ikustera joan nintzen, eta bi taldekoei animatu izan diet.

Nolabait jarraipena egiten diozu Tolosari? Lagunak eta ezagunak izango dituzu...

Bai, horregatik. Tolosan beti sekulako harremana izan dut jokalariekin, eta harreman hori izaten jarraitzen dut, eta beraiek ikusteak ilusio egiten du.

Zer esan dizute? Bai Realaren lehen taldean aritzeagatik eta baita Txapeldunen Ligara sailkatzea lortzeagatik?

Nitaz harro daudela, lortu dudanagatik. Aurrekoan garaikur bat ematera joan nintzen Nescup Torneora, eta horrelako gauzek ilusioa egiten dute. Zutaz gogoratzen direla ikusteak ilusioa egiten du.

Bigarren taldetik lehen taldera pasatzean ezagunagoa zarela nabaritzen da?

Bai, orain jende gehiagok ezagutzen nau, eta hori polita izaten da. Oraindik gaztea naiz eta ikustea erreferente bat naizela gazteentzat, polita da.

Nerea Eizagirre da eskualdeko beste jokalaria lehen taldean. Aurretik elkar ezagutzen zenuten?

Bai, baina bera Tolosatik Añorgara

joan zen eta gero zuzenean lehen taldera igo zen. Ezagutzen nuen, Euskal Herriko selekzioan-eta bat egin dugu noizbait. Egia da bera beti zaharragoekin egon dela. Lagunak izan gara betidanik, futbolaren munduan ibili garelako biak, eta niretzat babesa izan da.

Gainera, Eizagirre kapitaina izanik, taldeko berriei laguntzea tokatzen zaio, besteak beste.

Bai, hori da. Babes handia izan da niretzat, eta baita behetik igo diren beste jokalarientzat.

Emakumezkoen futbola azkenaldian albiste izan da: liga profesionala bihurtu da. Beharrezko pausoa zen?

Nik, egia esan, ez dut gehiegi ezagutzen kontu hori, eta are gehiago nire lehenengo urtea izanik. Baina bai, profesional izatea zen helburua. Merezi dugun gauza bat da; egindako lanak ekarri duen fruitu bat izan da, eta uste dut oraindik hazten joan behar duen kontu bat dela.

Gaur egun, futbola da zure egiteko nagusia?

Futbolaz aparte orain goi mailako ziklo bat ari naiz ikasten. Aurreko urtean Eason egiten nuen, Donostian, baina denboraldi honetan goizez entrenatzen genuenez, Madrileko eskola batean aritu naiz Internet bidez. Nahiko ondo moldatu naiz, eta bi egitekoak uztartu ahal izan ditut.

Datorren denboraldiari begira zertan nabaritutako duzue liga profesionala izatea?

Hitzarmen bat sinatuko da, gutxieneko soldata batekin. Horrez gain, amatasun bajaren inguruko kontuak ari dira negoziatzen. Aurten sindikatu berri bat aterata da, Futpro izenekoa, eta bera ariko da baldintzak negoziatzen.

Zer falta da gizonezkoen futbolak dituen baldintzetara iristeko?

Askok falta da, baina ea pixkana lortzen dugun parekatzea.

Azken partida Reale Arenan jokatu zenuen igandean, Alavesi 6-1 irabazita.

Nolakoa izan zen partida?

Bigarren postu hori lortuta azken partidak hori disfrutatzekoa izan zen. Denok merezi genuen disfrutatzea, eta etxeko

«Liga profesionala izatea merezi duguna da»



lanak eginda, gure zelaian jokatzeko plazer bat izan da. Nahiz eta helburua lortuta eduki, gure zelaian eta gure afizioaren aurrean ondo bukatu nahi genuen denboraldia. Irabaztera joan ginen, eta garaipen oso on bat lortu genuen. Afizioa oso ondo egon zen, momentu oro animatzen, eta gero beraiekin ospatu genuen. Oso pozik, beraz, lortutako emaitzarekin, eta denboraldia nola bukatu dugun ikusita.

Bukatu da, beraz, denboraldia?

Aste honetan izan ditugu entrenamenduak, eta gero oporrak edukiko ditugu.

Oporrak ohi baino motzagoak izango dira, Txapeldunen Liga jokatu behar duzuelako?

Bigarren geratzean, irailean hasiko denez, uztaillean hasiko dugu denboraldiaurrea. Hirugarren geratuz gero, lehenago hasi beharko ginateke entrena-



tzen, abuztuan lehen atarikoa izango genukeelako. Beraz, bi hilabeteko oporrak izango ditugu.

Noiz hasiko zarete Txapeldunen Ligan lehiatzen?

Joan-etorriko partida izango da, eta irailaren hasieran izango da, liga hasi aurretik. Oraindik ez dakigu zeinen kontra jokatuko dugun, hirugarren geratu direnek aurrekanporaketak jokatu behar dituztelako.

Zuen asmoa, noski, kanporaketa irabazi eta ligaxkan sartzea izango da.

Bai, hori da. Gure helburua hori izango da, eta orain ikusi beharko dugu zein izango dugun aurkari. Europan maila handia dago emakumezkoen futbolearen, Frantzia eta Ingalaterran, adibidez.

Eta aurrera begira, zein da zure egoera Realean?

Lehen taldean egongo zara datorren denboraldian?

Bai, konfirmatu didate datorren urtean lehen taldeko jokalaria izango naizela, eta bi urterako hitzarmena sinatu dut. Nire ametsa egia bihurtu da, egindako lanaren fruitua izan da eta oso pozik nago bertan jarraituko dudalako.

Behin lehen taldeko kide izatea lortuta, hurrengo pausoa titular izatea da?

Beno, asmoa da pixkana gehiago jokatzea, neure buruarekin konfiantza gehiago izatea, segurtasun gehiago izatea, eta ikustea gai naizela lehenengo mailan jokatzeko.

Motzean

Jokalari bat?

Nuria, nire taldekidea. Nire postuan jokatzen du, eta esango nuke ligako ezker hegaleko defentsa onena dela. Bere pausoak segitzen ari naiz, eta erreferente bat da ni hobea izateko.

Partida bat?

Valentziaren aurkako partida. Oso gustura atera nintzen, eta nire lehenengo asistentzia egin nuen. San Mamesen jokatutakoa ere bai, nire debuta izan zelako. Gustura bukatu nuen, baina amaieran ezin nituen hankak mugitu ere egin.

Jokaldiren bat?

Valentziaren aurkako asistentzia. Amaiurri pasa nion, aurkaria atzean utzi, Amaiurrek pasa zidan, erdiratzea egin eta Allegrak buruz sartu zuen.



Lortutako titulu bat?

Realaren bigarren taldearekin Euskal Ligatik 1. Maila Nazionalera igo ginenean. Bi urtez mailaz igo ginen jarraian.

Amets bat?

Munduko Txapelketa batean parte hartzea.

Gola sartzea edo azken pasea ematea?

Biak. Baina agian nire postuarengatik golak sartzea ez da errazena, beraz, azken pasea ematea.

Futbolaria ez bazina?

Txikitatik esan dut soinketako irakaslea izan nahi nuela, eta orain, gradua bukatzen dudanean, nire asmoa karrera ateratzea da eta egunen batean irakaslea izatea.

URTE HISTORIKOA



REAL SOCIEDAD

Batzuetan neurritz kanpo erabili ohi da «historikoa» adjektiboa. Oraingoan arrazoitua dela esan daiteke. 2004-2005eko denboraldian sortu zuten Realak emakumezkoen taldea, eta bigarren mailara igotzea lortu zuen zuzenean. Hurrengo denboraldian Espainiako Ligaren lehen mailara igo zen, eta bertan hamaseigarren denboraldia egin du asteburuan bukatu berri denarekin. Orain arte ligan lortutako postu onena bosgarrena izan da, 2015-2016 denboraldian eta aurrekoan. Denboraldi honetan bigarren postua lortu du, eta lehendabizikoz Txapeldunen Liga jokatzeko eskubidea lortu du. Hori bai, atarikoak jokatu beharko du, baina sailkapenean hirugarren geratu denari aurretik beste neurketa bat gehiago jokatzeko egokitzen zaio.

Realak urte historikoa egin du, beraz, eta horren errudun nagusietako bat Natalia Arroyo entrenatzaile kataluniarra da. Arroyoren bigarren denboraldia izan da bukatu berri dena, eta iaz erakutsitako maila koska bat gehiago igo du. Jokalariei ere, noski, eman

behar zaie bere meritua, are gehiago denboraldia hainbat aldaketekin hasi zelako. Jokalari ugarik utzi zuten taldea eta Realarentzat urte zaila izango zela uste zen, baina taldeak konfiantza handiz jokatu du, bigarren postu hori lortuz.

Jokalarien artean bi dira eskualdekoak: Nerea Eizagirre tolosarra eta Izarne Sarasola ibartarra. Protagonismo berezia izan du Eizagirrek, taldean izandako aldaketak direla-eta bera izendatu baitzuten kapitaina. Sekulako denboraldia egin du, nortasun handia erakutsiz eta hamasei golekin taldeko bigarren goglea bihurtuz. Sarasolarentzat urte ahaztezina izango da, lehen taldean debuta egin duelako, eta Realaren urte historikoaren parte izan delako. Orain Txapeldunen Ligaren atarikoak jokatzeko tokatuko zaie, eta beste pauso bat eman nahiko dute, lehiaketaren ligaxkan sartuz. Espainiako Ligan erakutsitako maila berretsi nahiko dute Europako talde onenen aurka, baina oraingoz ondo merezitako oporrak izango dituzte.



zozketak



Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu

SUA espazioan egingo den
ikastaroan parte hartzeko
Tolosako parrilleroek txuleta bat erretzen
irakatsiko dizute eta noski, txuleta
dastatuko duzu ondoren!

• Iñigo Martin (Tolosa)

Saria jasotzeko Ataria jarriko da harremanetan



Mantangorrik 1000 elkarrekin

Haur eta gaztetxo mantangorrizaleentzako ospakizuna **maiatzaren 28an Txillida Lekun**



Hartu zure tokia, lekuak mugatuak dira: berria.eus/berrialaguna/denda/



CHILLIDA LEKU

berria

zuk badakizulako

Erronka berriei
aurre egiteko,
aldatu beharra dago.

Iritsi da **TicketBAI.**

Enpresek aurrera egiten dutenean,
Gipuzkoak aurrera egiten du.

Gipuzkoako
Ferre Alkandila
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro



TicketBAI
GIPUZKOAN

gipuzkoa.eus/ticketbai



**JON ANDER
GALARRAGA**
BIOLOGOA

Koldo ez da baserritarra

Koldo ez da baserri-
tarra, baina Koldok
baserri batean bizi
nahi du. Koldo to-

losarra da, kaletar peto-pettoa, Letxuga kalean jaioa, Korreo kaleko kalezuloetan hazia eta Errementari ka-
lean poteoa eta ez-ligatzearen arte ezkutuetan jan-
tzia. Koldoren umetako paisaiaren kolorea kaleko as-
falto grisa izan da, baina Koldok ume-umetatik mires-
mena eduki du larunbatero merkatuan ikusten zituen
baserritarrekin, beraien kolore biziko postuak, be-
raien hizketa alaia, eguzkiak belztutako azala, txape-
lak, irribarrea, baserritarren txisteak, saskiak, alkan-
dorak... eta txikitatik baserrian bizitzea du amets.

Gaztetan ordea, Koldok ez zituen Nekazaritza eta
Abeltzaintza produkzioko ikasketak egin, Koldok se-
gurura jo zuen eta Lanbide Heziketan *Kontrol nume-
rikoa* ikasi zuen. Ikasketak amaitu eta segituan hasi
zen lanean eta Villabonako industria-guneko kale
estu batean dagoen tailer txikian darama lanean,
egunero zortzi edo hamar ordu sartuz, makinak eta
mota guztietako torloju artean. Baina Koldok, taile-
rraren iluntasunean, egunero eguraldi ona dagoen
baserri batean bizitzea du amets, eta torloju multzo
bati begira, Koldok bere etorkizuneko baserriko ar-
taldea dela pentsatzen du, torlojuak gordetzeko
kaxa ardien ganbela eta kolore ilunena duen torlojua,
ardi beltza. Ardi itxurako torloju hauek zaintzen, bere
Bixkor artzain txakurra dabil, baina Bixkor txakurrak
ez du zaunkarik egingo sekula, izar formako bihurkin
edo destornilagailu bat delako.

Tolosako kaleetan poteoan dabilen batean, farola ba-
tean iragarki bat ikusi du: «Altzo Azpin, baserria salgai,
egoera onean». Eta Koldori barrenak astindu zaizkio.
Altzo Azpiko eremu paregabean ikusten da bera, base-

rri handi eta zuri baten jabe. Goizero oiloen karakakekin
esnatzen, eguzkia, orain ehun urteko leiho zaharretatik
gozo-gozo sartzen zaion bitartean, eta bere oilo, behi,
asto eta ardiei jaten eman ostean, hamaiketako bat egi-
ten ikusten du bere burua belardi baten erdian, haritz
baten gerizpean, tximeletez inguratua eta bertaratu
zaion katagorri lotsagabe bati ogi zatiak emanez.

Hurrengo goizean Altzo Azpiko eremu paregabe-
ko baserri saltzailearekin geratu da. Mendi magal ba-
tean dagoen herentzian utzitako baserri zaharra da,
teilatua osorik du, paretak ere bai, harri-bistan, eta
ukuilua guztiz eroria daukan arren, lan apur batekin
argal dauden behi pare bat sar litezke bertan. Jabeari
seinale bat eman eta hurrengo egunean, bankuarekin
hitzordua jarri du Koldok, hilabete baten amaiera,
Koldo kaletarra, Altzo Azpiko baserri baten jabe da...
30 urterako hipotekarekin noski.

Asteburuan, lagun batzuekin batera, baserria bizi-
tzeko adina atondu du, lotarako gela bat prestatu du,
sukaldea txukundu eta ekonomikan sua piztu du.
Ekonomika zaharraren keak eraginda edo, Koldo ba-
serritarra, gora etorri da eta kotxea hartu eta anima-
liak erostera joan da. Aurreko larunbateko merkatuan
ezagutu duen baserritar jakintsu baten aholkuei ja-
rraituz: «*Animalikin tratun hasteko, belaunetik behe-
rakokin hasi behar dek, geo gerritik goragokokin eta
azkena, hire lepoa baino altuagokin. Orain hoberena
oiloekin hastea dek, gero antzarak jarri, hauek etxea
zaintzeko oso onak dituk eta nahi badek, baserri kan-
pon politte itteko... untxik jarri*». Gomendio hauei ja-
rraiki, Koldok ilusio osoarekin, sei oilo, bi antzara eta
lau untxi erosi ditu.

Bizitzeko adina atondukotako baserria, nahiko
itxuroso geratu zaio Koldori, gerra zibil baten osteko
etxe ataria eta haize bolada batek astindu berri duen

«Eta Koldori barrenak astindu zaizkio, Altzo Azpiko eremu paregabe ikusten da bera»

barnealdea duen arren! Sukaldeko ekonomika zahar handiaren izenaren zergatia Koldok ez du ulertzen:

e-ko-no-mi-ka. Oso merke eta ekonomikoa izango da, baina lanetik etorri eta egurra txikitzen pasa dituen bi orduak eta gero, Koldoren eskuetako babak eta bizkarreko minak, ekonomikoak atera ordez, garestiak atera zaizkio. Egunak ez dira errazak izaten Koldo baserri gizonarentzat, tetxoan armiarma erraldoi bat dago, gau osoa Koldori mehatxagarri begira, saguak nonahi dabilta sukaldeko armairuetan ahal duten guztia jaten, eta atariko askan suge luze bat topatu zuen lasai asko igerian. Gainera oraindik ez du komunik eta alboko pikondopean egiten du kaka, Koldok ez zekien kaka naturalean egitea hain deserosoa zenik, bart gauen bi aldiz moztu diote kakaldia, izterren artean animalia likatsu eta luzea igaro zitzaizkiolako, leunki bere izter barnealdea laztanduz.

Eta egunak gogorak baziren, zer esan gauez! Jimenetzarreneko lkerrek, mamu eta izpirituei buruzko sei programa aterako lituzke Koldoren baserrian gauean entzuten diren zaratekin. Bi egun daramatza Koldok beldurtuta lorik ezin egin, «*Krak!, pum-pum-pum eta zarrasssst*» gauerdiko soinen artean.

Animalien tratuekin zer esan, hasiera oso pozik zen Koldo, oiloei izenak ipini zizkien: Koko, Moko, Koxka, Paka, Kika... betiko euskal oiloen izen tradizionalak. Antzarek ere izena dute, *Goenkaleri* omen eginez: Hortentxi eta Xatur jarri die, beti zalapartan dabilta-lako. Untxiak zoragarriak ziren, leunak eta saltariak, goxoak, politak, xarmagarriak... baina gauean haien etxetxoan sartu zen *piztia* batek denak akabatu zizkion. Koldok bi egun eman zituen etxeko atarian negarrez, lepoa mozturik zuten untxien gorpuak etxe alboan usteltzen ari ziren bitartean.

Oiloak aske bizi dira baserri kanpo eta barruan, baina bigarren gauean beste *gautxori* ba-

tek bi oilo eraman dizkio, ordutik, gauean oiloak sukaldean gordetzen ditu. Oiloei asko atsegin zaie sukaldea, oso zaleak dira sukaldeko zoruko labezomorroak harrapatzen, mahaiepeko ogi apurrak jaten eta mahai gaineen kaka egiten, goizeroko lana da Koldorena gosaldutik aurretik mahaia gainetik oilo zirina garbitzea. Egun batean, gosaltzen zela oilo bat sagu baten atzetik ikusi zuen lasterka, hasieran barragarria izan zen, oiloak mokoka sagu koitadua akabatu eta oilo guztien artean irentsi zuten arte, ordutik aurrera oiloak etxean dauden bitartean, Koldok bere gelako atea itxi egiten du.

Xatur eta Hortentxi antzarak zelatari onak direla egia da, edozer gauzengatik ordu txikitan karranka hasten dira, Koldori berebiziko sustoak emanez... Ohe azpian labana txiki bat du badaezpada ere. Hala ere, Xatur eta Hortentxi antzara zaindarien ez dute ikasi Koldo beraien jabea dela eta lanetik berandu eta nekatuta zetorren neguko gau batean, Xaturrek ezker barrabilean koxka egin eta Koldok Tolosako anbulatorioko larrialdietan amaitu zuen gaua, barrabiletako ekografia eta guzti egin zioten. Gaur egun oraindik ezker barrabila puztua eta morea dauka.

Kondairak dio, Koldok belaunetik beherako animaliak gobernatzea lortu zuela, txakur txiki zelatari bat ekarri zuela baserrira, Bixkor izena jarri zion noski! Ostean komun bat ere ipini omen zion baserriari, ukuilu bat ere eraiki omen zuen eta meta-belar bat egin zuen baserri alboan, orain gogo biziz omen dago ardi batzuk erosteko. Hau baserritartu nahi zuen kaletar baten kondaira soil bat da, errealitatearekiko edozein antzekotasun, kasualitate hutsa da.

Salgai?



ALEX PADILLA
KALEZALE
AMORRATUA

Hamabost bat urte edo izango dira gurasoen etxetik joan nintzenetik. Ikasketak kanpoan egin nituen eta harrezkeroztik hilabetero ordaindu dut bizi izan naizen etxeetako alokairua.

Ez dut inoiz etxe bat erosteko asmo edo ilusio berezirik izan. Ipurtarin bat izan naiz beti eta gaur egun Tolosan bizi naizen bezala, beharbada hurrengo urtean Madrilan egon naiteke lan edo proiektu berri batekin

eta horregatik ez dut inoiz etxe batekin lotura berezirik izan. Gaur egun arte.

Pisuen alokairuaren prezioak ikusita, inbertsio moduan etxe bat erosteko ideia hori geroz eta gehiagotan pasatzen da nire burutik. Nire lagun guztiek jada beraien pisu propioa dute eta ez dakit... nirea izango den zerbaiten ideia hori, bueltaka dabil azkenaldian.

Bakarrik bizi naiz eta seme-alabak izatea ez da nire etorkizuneko planetan sartzen. Hori dela eta, nire bizitzako proiektua eraikitzeko ideia horretan, beharbada etxe bat erostea hasiera izan daiteke.

Argi geratu zait, pertsona edo bikote batek etxe bat erosteko erabakia hartzen duenean, argi izan behar duela egunean denboratxo bat eskaini behar diola. Lan bat dela, azken finean. Idealista eta Fotocasa bezalako web orriak, ligo-teorako appak bezainbeste erabiltzen hasi naiz egun hauetan. Eta bai... lagunek jada aurreratu didate, gustuko dutun etxe bat ikusten duzunean, berehala deitu behar duzula bisita bat ixteko eta hipoteka ere erdi itxita ere izan behar duzula. Aukera eta pisu onak oso azkar desagertzen direlako eta aplikazioetan atera bezain azkar saltzen direla gehienak. Ufff... a ze estresa!

Eta gero hor hasten dira komeriak: argi gutxi, metro gutxi, goitik behera berritu beharra, balkoirik ez... eta batez ere: prezioa. JO-DER... ez dakit jendeak nola egi-ten duen etxe bat hain azkar erosteko. Guztiz hipotekatzen du bere burua?

Bakarrik bizi garenok, zailtasun gehiago ditugu etxe bat erosteko garaian. Eta nahiz eta soldata on bat izan, sentsazioa daukat oso bakarrik gaudela. Traba dextente topatzen ditugula etxea erosteko abentura horretan. Adinez aurrera goazen heinean, geroz eta exigentzia/beharrak gehiago izaten ditugu eta noski... oso zaila da buruan duzun etxe idealizatu hori topatzea. Eta beharbada, bikote bat idealizatzen dugun bezala idealizatzen ditugu etxeak.

Horregatik, norbaitek bere etxea edo lagun/ezagun baten etxea salgai baldin badauka, jar dadila nirekin harremanetan @alexkalextrik Instagram edo Twitter kontuan. Beharbada, nire etorkizuneko etxea topatzen lagunduko didazue.

«Nire bizitzako proiektua eraikitzeko ideia horretan, beharbada etxe bat erostea hasiera izan daiteke»

Oinez



**OLATZ
PEÑAGARIKANO
IRAZUSTA**

Mundua ederra-
goa da umea-
ren begirada-
tik. Bizitzen
ikastea eta bizitza ulertzea
abentura ikaragarria da eu-
rentzat. Keinu zein imintzio
txiki bakoitza garapen ona-
ren seinale da, eta guraso be-
rri ez jakinentzat hain da go-
zagarria horren lekuko iza-
tea!

Bada momentu bat oso maite dudana: oinez ikas-
ten ari direnekoa. Ezin politago daude deabrutxo
horiek, erdi mozkor dinbili-danbala, hanka-zabal

gabe egiten dutela dirudi, baina ez pentsa, bere sin-
pletasunean ere konplikatu da: haurrek ere seguru
sentitu behar askatuko badira.

Eta hamabost hilabeteko semeari begira nagoen
honetan, konturatu naiz jaiotzetik dugun sentimen-
du hori ez zaigula bizitza osoan joaten. Alegia, izu-
garri kostatzen zaigula geure buruarekin seguru
sentitzea, konfiantza hartzea... eta askatzea. Batez
ere askatzea. Beldurra ematen digulako erortzeak,
eta ahaztu egiten zaigulako eroriz gero berriz altxa
gaitezkeela.

Egin kontu: zenbat proiektu utziko genituen erdiz-
ka -edo hasi ere ez- ez dugulako behar besteko se-
gurtasunik? Ez garelako nahikoa gaituta sentitzen?
Zergatik ematen digu hainbesteko erreparoa balan-

**«Ezin politago daude deabrutxo horiek,
erdi mozkor dinbili-danbala, hanka-zabal ahateen gisan,
orain erori eta hurrena ere bai»**

ahateen gisan, orain erori eta hurrena ere bai. Hasie-
ran heldulekuren bat lagun aritzen dira, edo esku-
txotik helduta, edo izan daiteke bizpahiru pauso sol-
te arrapaladan... Denak balio du, aizue!

Iristen da, ordea, askatzen diren unea, pausoa
irmo eta zehatz ematen dutena, mundua jateko irri-
kaz, irribarre xalo ia hortzik gabearekin... Ohartu

tzaka ibiltzeak? Ez al da, bada, arituz ikasten? Ez al
da zilegi okerreko urratsa eman eta erortzea?

Beraz, hurrengo batean zalantzati zaudenean,
pausoa ematera ausartzen ez zarenean, gogora eza-
zu ume izan zinela, eta behin askatu bazinen, behin
egin bazenuen, orain ere egingo duzula. Ez baitugu
alferrik esaten eroriz ikasten dela oinez.

AGENDA

OSTIRALA

MAIATZAK 20

AMASA-VILLABONA

BILKETA HERRIKOIA

Oinarrizko produktuen bilketa herrikoia herriko dendetan.

MAIATZA BORROKAN

16:00. Haima, hena, musika...

18:00. *Robo de recursos naturales al Sahara occidental* hitzaldia, gaztelaniaz, Cristina Martinez Benitez de Lugorekin.

19:30. Elkarretaratzea.

URTEURRENA

18:28. Onddo Gazte Asanbladaren 25. urteurrena. Txupinazoa, Onddo plazan.

Ondoren. Ginkana, Kale Nagusian.

21:04. Barrikotea, Berdura plazan.

ANOETA

IKASTAROA

17:30. Ahalduentze ikastaroak emakumeentzat. Mindfulness. Gela balioanitzan.

ELDUAIN

ANTZEZLANA

19:30. Katiuska antzerki taldearen *Armiarma* antzezlan. Sarrera: 5 euro. Intzenen.

IBARRA

MILIMETROAK FESTA

Naziotasuna aurrez aurreko elkar ezagutzaren bidetik. LH6ko ikasleen arteko topaketa.

10:30. Aurkezpena eta jolas eta jokoen hasiera, herriko plazan.

13:00. Bazkaria, Emeterio Arresen.

14:00. *Flash mob*-a, herriko plazan.

15:00. Amaiera.

IRURA

KULTURANIZTASUNAREN ASTEA

Pintxopote kulturantzuna. Munduko hainbat txokotako musika eta pintxoak Irurako taberna hauetan: Aizpurua, Enara, Errekalde eta Trinketea. Irura Bizi elkarteak sustatuta.

17:00. Las Divinas (Gipuzkoako emakume nigeriarren elkartea) elkartearen eskutik, ipuin kontaketa euskaraz eta igbo hizkuntzan. Ondoren, trentza tailerra. Irura moretuz emakume taldeak antolatuta. Herri eskolako aretoan.

17:30. Munduko sukaldaritzataillerra. Munduko hainbat txokotako platerak prestatuko dira kultura anitzetako irurarrek gidatuta. Ondoren, afari-merienda egingo da prestatutakoa dastatzeko. Gehieneko plaza kopurua 15 lagun (Irura Bizi elkarteak antolatuta). Gazte Alaiak elkarteak.

TOLOSA

ATE IREKIAK

Isidro Larrañaga Musika Eskolako ate irekiak. 15 minutuko proba klaseetan izango da. Izena emateko: 623 144987 edo info@isidromusikaeskola.com.

URTEURRENA

lurre elkartearen 25. urteurrena.

17:30. Haurrentzako jolasak.

Ondoren. Txokolatada.

19:00. Mus txapelketa.

HARAGI

13:00. Gure lurraldea dastatzen ekimena, Hika txakolindegian.

18:00-00:00. Haragi Fest ekitaldia, Zumarditxikian. *FoodTruck* gunea: Ama, Goya, Barriola, Ekotalo eta Basquetruck.

19:00. Musika zuzenean: Mambo Fango vs. Global Funk DJak.

GNAT ZINEMA

19:00. *Animal* lanaren proiektzioa, Topic-en.



BISITA GIDATUA

19:00. *Gaurko euskal eskultura* erakusketaren bisita gidatua, Aranburu jauregian.

ERREZITALDIA

20:30. *Verso a verso* errezitaldia, Charo Lopezen zuzendaritzapean, Leidorren.

KONTZERTUA

22:00. Keia eta Ramada Inn taldeen kontzertua, Bonberenean.

ZIZURKIL

MAIATZA SALTSAN

19:30. Anakrusa eta Big Bandaren kontzertua. Joxe Arregi plazan.

LARUNBATA

MAIATZAK 21

ABALTZISKETA

TXINDOKIKO KILOMETRO

BERTIKALA

10:00. Izen-emateak *Rockthesport.com* webgunean egin daitezke.

ALKIZA

SAIOA

Txorien kantuak ezagutzeko saioa, Mikel Olano basozainaren eskutik.

10:00. Aurkezpena, Fagus Alkiza interpretazio zentroan, txorien



argazkiak pantaila handian ikusiz eta haien kantuak entzunez.

Ondoren. Adin guztientzat egokia den ibilbide bat egingo dute. Bi ordu inguruko jarduera izango da. Izen-ematea: kultura@alkiza.eus edo 688 604 466. Alkizarrek eta 12 urtetik beherakoek doan, gainerakoek 5 euro. Euskaraz. Prismatikoak eramatea gomendatzen da.

MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA

18:00. Itziar Gutierrezen argazkien erakusketa, *Evaren alabak*; eta Saxo bi (Judith Montero eta Roberto Pacheco) eta Susana Cencilloren kontzertua Ur Mara museoan. Sarrera dohainik da



baina afaroa mugatua izango da. Izena emateko: urmara.alkiza@gmail.com.
Ondoren. Community food afaria.

ALTZO

IRTEERA

08:30. Egun osoko irteera egingo da Araba aldera: Zalduondoko Azkarra gaztandegia eta Añanako gesaltzak bisitatuko dira, Añanan bazkaldu eta Agurainen geldialditxo bat eginez Altzora itzuliko dira.

AMASA-VILLABONA

BILKETA HERRIKOIA

Oinarrizko produktuen bilketa herrikoia, Eroski eta BMko atarietan.

URTEURRENA

Onddo Gazte Asanbladaren 25. urteurrena.

11:36. 25 urtez *Onddo bizirik!* bideo proiektzioa Gaztetxean eta hamaiketakoan.

Ondoren. Karropoteoa, Kale Nagusian.

14:32. Bazkaria.

Ondoren. DJ Fresa Morango, Gaztetxeko terrazan.

22:02. Kendal Gaua, Gaztetxean.

ANTZERKIA

18:30. *Trapu zikinak* antzezlan. Lore More. Geuretik sortuak proiektuaren barruan. Sarrera doan. Amasako Mikeliartza baserrian.

AMEZKETA

SAIOA

09:00. *Orekaren bidea* Haritz Saez de Nanclares eta Maier Lopetegui. Taldeko energiak eskatzen duenaren arabera moldatuko dute tailerra. Meditazioa, kostelazioa era mugimendu askearen teknikak erabiliz bizitzako esparru ezberdinak jorratuko dituzte. 35 euro. Kultur etxean.

ANOETA

HITZALDI-TAILERRA

Maitasun erromantikoari buruzko hitzaldia, Gaztetxean.

BERASTEGI

PODOLOGOA

Udaletxeko erabilera anitzeko gelan. Izena emateko udaletxera deitu behar da: 943 68 30 00.

AUZOLANA

08:30. Auzolanerako deialdia, Berastegiko bazterrek txukun mantentzeko.

Ondoren. Hamaiketakoan.

GAZTELU

UDABERRI FESTA

11:00. Sendabelar eta landare jangarrien tailerra, Pili Otaegirekin. Plazatik abiatuta mendi buelta eta bildutako landareekin bazkaria Erroizpe Azpiko kirol eta kultur elkartearen.
17:00. Krepn merienda, plazan.
18:30. La Jodederaren kontzertua, eliza-atarian.
21:00. Afaria, elkartearen.

IBARRA

KMK. KANTUJIRA ETA KALEJIRA

11:30. Plazatik atera eta Ibarra zehar kantuan, Giro Arte dultzaineroekin batera.
Ondoren. Sendi Ekintza elkartearen bazkaria. Bazkarian izena emateko: 669 025 330 edo jozaita.kilometroak@uzturpe.eus.

DANTZARI TXIKI EGUNA ETA

ALURR EGUNA

Ibarrako Dantzari Txiki, Alurr dantza taldearen eskutik izango da.
10:30. Dantzari txiki hasiera.
10:45. Kalejira herrian zehar.
12:00. Elkarretaratzea Emeterion. Fandango & Arin Arin.
12:30. Plazako emanaldia. Xapeloatz & Kalejira.
16:30. Haur eta gazteentzat jolasak.

IKAZTEGIETA

IKASTAROA

10:00. Sendabelar ikastaroa Herrian ibilaldia egingo da inguruko sendabelarrak ezagutzeko eta biltzeko eta, ondoren, ukenduak egingo dira. Herriko zubitik abiatuko da ibilaldia. Ukenduak erabilera anitzeko aretoan egingo dira.

LIZARTZA

PINTXO TOUR

12:00-14:00. Kultur aniztasunaren nazioarteko egunaren harira, Lizartzan Pintxo Tour ekimena antolatu dute, plazan. Thailandia, Kuba, Sahara, Mexiko, Honduras eta Ekuatore Ginea presente egongo dira.

OREXA

OREXA SARIAK

11:00. Oresa Sariak, Ostatu Ganbaran.

TOLOSA

URTEURRENA

lurre elkartearen 25. urteurrena.
09:30. Azken hiru urteotan hil diren elkarteko bazkideen aldeko meza, San Frantzisko elizan.
11:00. Hamaiketako elkartean.
11:30. Toka txapelketa.
13:00. Kalejira-poteoa, txarangak alaituta.
14:30. Bazkaria elkartean, txarangak alaituta.
TXAPELKETA
10:00-14:00. Udaberriko Ligaren San Joan saria, igeriketa. Tolosaldea IKT-k antolatuta, Usabalen.

11:00. Gipuzkoako herri kirol txapelketa, alebin mailan. Gipuzkoako herri kirol federazioak antolatuta. Uzturpe kiroldegian, Santa Luzia auzoan.

HARAGI

11:00. Errekien dastaketa, Trianguloa plazan. Bertako eta

nazioarteko parrilleroek euren haragia erretzeko teknikak erakutsiko dizkigute Tolosako Trianguloan. Ondoren, erreki hauek dastatzeko aukera egongo da. Bertaratuko diren sukaldariak: Florencia Abella (Eksdet, Estokolmo), Pablo Rivero (Parrilla Don Julio, Buenos Aires) eta Txomin Parrilla (Euskal Herria).

10:30. Sua espazioa, Trianguloa plazan. Tolosako txuleta tradizionala erretzeko teknika ikasteko esperientzia gastronomikoa, bertako parrilleroen eskutik. Mozketa teknikak, brasa pizteko modua eta txuleta erretzeko gako nagusiak irakatsiko dira. Ondoren, dastaketa. Iraupena: 60 minutu (2 txanda daude). Prezioa: 5 euro.

12:00-00:00. Haragi Fest, Zumarditxikian. *FoodTruck* gunea: Ama, Goya, Barriola, Ekotalo eta Basquetruck. Musika zuzenean: 12:00etan, Deñe; 15:00etan, Filipe Bittencourt; 20:00etan, Mugan; eta 22:00etan, Moonshine Wagon.

KONTZERTUAK

11:30. Tolosako Ekinbide Etxeak Musikenerekin lankidetzan, *Maiatzeko Doinuak* kontzertuak antolatu ditu larunbatero. Sergio Bolaños biolin jotzailea, Teresa Castañon klarinete jotzailea eta Raquel Fernandez piano jotzailea izango dira Bartok, Milhaud eta Khachaturian-en piezak joko dituztenak. Topic-en.
18:30. Udal musika bandaren eta Eduardo Mokoroa musika eskolako ikasle taldeen kontzertua, Plaza Zaharrear.

22:00. Pinpilin Pussies eta Tzar taldeen kontzertua, Bonberenean.
22:30. Haitza taldearen kontzertua. Juanpa. Xanet, Xabi, Ander, Aitor eta Anaitz. Frontonen.



FORMAZIOA

16:00-20:00. *Under water*, igeriketa formazio saioa. Tolosaldea IKT-k antolatuta, Usabal kiroldegian.

AZOKA

16:30-19:30. Birziklatu azoka, Berdura plazan.

ZIZURKIL

MAIATZA SALTSAN

Zizurkilgo XXII. Biatloia. Herrigunean.

IGANDEA

MAIATZAK 22

ALBIZTUR

KONTZERTUA

18:00. Alaitz Artolaren kontzertua, plazan.

ALEGIA

UDABERRIKO KULTUR EGITARAUA

11:00. Mendi irteera Languarrera eta habia etxeak egiten ikasteko Txoribox tailerra.

AMASA-VILLABONA

URTEURRENA

Onddo Gazte Asanbladaren 25. urteurrena.
06:02. Gaupasero argazkia.
06:12. Gosaria.

AGENDA



ANOETA

IKUSKIZUNA

19:00. *AMARAun. Irunez iraun.*
Oihana Iguaran eta Amañur Luluaga.
Sarrera: 5 euro.

IBARRA

ORIENTAZIO PROBA HERRIKOIA

09:30. Ibilbide luzea (4 orduko iraupena gehienez).
10:30. Ibilbide motza. (2 orduko iraupena gehienez). Bidetxur mendi taldeak antolatuta. 2-4 pertsonako taldeak.

BERROBI

UDABERRIKO KULTURALDIA

09:00. Mendi irteera Uzturrera.
10:00-14:00. Udaberriko azoka, Garagardo artisaua, bertako barazkiak, animaliak, Nafarroako oliba olioak, eztia, kosmetika naturala, bitxiak, arropa diseinatzaileak, ardi eta ahuntz gazta, ogi ekologikoa, zeramika, egur tailak, kontserbak... Plazan.
17:30. Herriko dantzarien emanaldia.

TOLOSA

X. TXIRRITA MENDI IBILALDIA

06:00. Luzea. 40 kilometro eta 3.000 metroko desnibela. Euskal Herriko iraupen luzeko ibilaldien zirkuiturako baliagarria. Bixente aterpetik (Amezketak).

08:30. Motza. 22 kilometro eta 1.500 metroko desnibela. Bixente aterpetik (Amezketak).

HARAGI

12:00-16:00. Haragi Fest, Zumarditxikian. *FoodTruck* gunea: Ama, Goya, Barriola, Ekotale eta Basquetruck. Musika zuzenean: 12:00etan, DJ Makala.

13:30. *Haragi* menua, Tolosako erretegieta.

KONTZERTUA

18:00. Samambaia taldearen Bossa Nova kontzertua, 3 tabernan.

ZIZURKIL

MAIATZA SALTSAN

Mendi ibilaldia, Zizurkilgo errota ezagutuz.

ASTELEHENA

MAIATZAK 23

ALKIZA

SAIO PRAKTIKOA

18:00. Etxeko kontsumoa tarifa elektriko berrietara egokitzen ikasteko saio praktikoa. Izen-ematea: argitu@gipuzkoa.eus edo 628 53 22 48. Fagus Alkiza interpretazio zentroan.

TOLOSA

ELKARRETARATZEA

12:00. Eskualdeko pentsiodunek elkarretaratzea egingo dute, udaletxe aurrean.

TOLOSATZEN ESKOLA IREKIA

Kontzienteki bizi da Tolosatzen Eskola Irekiaren denboraldi honetako leloa. Kultur etxean.

18:00-20:00. Doluaren prozesu naturalari buruzko hitzaldi dibulgatzailea, Izaskun Andonegiren (Donostiako Bidegin elkarteko aditua) eskutik, kultur etxean. Pertsonen sufrimendua arintzeko egindako lan sozial handiagatik irabazi asmorik gabeko elkartea da Bidegin.

ZINEMA



ORKESTRA LURTARRA

Larunbata eta igandea (17:00).
Amasa-Villabona, Gurea.



ALCARRAS

Larunbata (19:00) eta igandea (19:00).
Tolosa, Leidor.



MENTES MARAVILLOSAS

Larunbata (19:30 eta 22:00), igandea (19:30) eta astelehena (20:30).
Amasa-Villabona, Gurea.



ARTHUR RAMBO

Larunbata (21:30) eta astelehena (19:00).
Tolosa, Leidor.



EL SECRETO DE VICKY

Igandea (17:00).
Tolosa, Leidor.

GARAI BATEKO GARRANTZIA BERRESKURATUZ

Tolosako Aranburu Jauregian ‘Gaurko euskal eskultura’ erakusketa jarri dute eta ikusgai izango da ekainaren 4ra arte. 1972ko maiatzean garaiko euskal eskulturagile onenen lanak bilduz antolatu zen erakusketaren 50. urteurrenean ekarri dute bilduma Tolosara.

Jon Miranda

Euskal Herri osoko adin ezberdinetako 110 eskulturgileren lanak izango dira ikusgai ekainaren 4ra bitartean Tolosako Aranburu jauregian, *Gaurko euskal eskultura* erakusketaren barruan. Besteak beste, Deba, Irun, Santurtzi, Beasain, Angelu eta Hazparne zeharkatu ondoren Tolosara iritsi da, duela 50 urte Aranburu jauregian bertan ikusgai izan zen erakusketa gogoan hartuz. Orduko hartan, garaiko euskal eskultore garrantzitsuenak bildu ziren eta oraingo honetan belaunaldi ezberdinetako eskulturagileek egingdako lanak bildu dituzte mostro honetan.

Euskal eskulturgintzak 60ko hamarkadan pisu nabarmena izan zuen euskal kulturaren berpizkundean eta Azken Muga elkarteko presidente Migel Zeberio-
ren ustez, eskulturagileek mundu mailako «abangoardia» osatu zuten: «Euren eskulturak egiteaz gain, euskal kulturaren hainbat oinarri teoriko eta filosofiko jarri zituzten. Berezi, Jorge Oteiza izan zen, beharbada, filosofia horretan idazlerik oparoena, baina belaunaldi hartakoak dira Eduardo Txillida, Remigio Mendiburu, Nestor Basterretxea edota Jose Luis Zumeta bezalako artistak».

1972. urtea mugarrizko izan zen euskal eskulturgintzan eta momentuko ekarpena jasoz hiru erakusketa

garrantzitsu antolatu ziren Euskal Herrian: urte hasieran Barakaldon, maiatzean Tolosan eta ekainean Iruñean. Gillerimo Olmo Azken Muga elkarteko kidearen esanetan, urte haietan puntu gorenean zegoen eskulturgintza eta presentzia handia zuen gizartean. «Oteiza eta Txillida dira belaunaldi hartako eskulturgile sonatuenak eta ezaguna da haien artean izan ziren ika-mikak. Kontua da Tolosan antolatu zen erakusketa horretan bakarrik egin zutela bat», esan du Olmok. Amezketan bizi den eskulturagileak gogoan hartu du Txillida tokiarekin «liluratuta» geratu zela eta orduan agertu zuela *Lizardiren leihoa* eskultura bertan kokatzeko asmoa. Urte batzuk beranduago ingurunea birgaitu zutenean jarri zuten Txillidaren eskultura ezaguna.

Gaur egun erakusketa ikusgai dagoen tokian bertan jarri zuten duela 50 urtekoa ere. Zeberio kontatu du: «Garai horretan etxe partikularra zen eraikina, eta itxura denez, egoera nahiko kaskarrean zegoen sotoa. Lizardi elkarteko bazkideek denbora puska bat eman omen zuten tokia atontzen erakusketa antolatu ahal izateko». Hain zuzen, Lizardi elkarteko Asensio Ondarabalen ekimenez antolatu zen 1972ko erakusketa. «Lan asko egindakoa da, argitale-

110

Eskulturagileren
lanak ikusgai

Garaiko euskal eskulturagile garrantzitsuenen lanak bildu zituzten 1972an Tolosako Aranburu Jauregian. 50 urte beranduago, *Gaurko euskal eskultura* erakusketan bildu dituzte egungo eskulturagileen lanak.

txe bat ere bazuen eta harreman estua zuen garaiko eskulturagileekin».

Lizardi elkartearekin batera Tolosako Ekinbide Etxearen lana giltzarria izan zela aipatu du Azken Mugako presidenteak: «Nahiz eta esparru zabala joratu, euskal kulturgintzan garrantzia handia izan zuen ekinbide etxeak. Eragile izugarria izan zen eta antolatu zituen euskal dantza ikastaroak, euskal musikarekin zerikusia zuten

ekimenak edota euskal abesbatzen lehiaketa. Hori guztia, oraingoa baino garai ilunagoetan eta frankismoa bete-betean zegoenean». TEE-n eskulturaren arloa bereziki landu zutela nabarmendu du Zeberioek eta bi eragile nagusi ekarri ditu gogora: «Batetik Antxon Elozegi eta bestetik Iñaki Epelde. Bien artean lan handia egin zuten eta lanketa horren ondorioz, gaur egun, Tolosako kaleetan ikus ditzakegu obra horietako asko. Herri gutxi izango dira Tolosa bezain aberatsak eskulturgintzari dagokionean. Garaiko eskulturagile ezagun askok beren obrak eman zizkieten Tolosako herriari, kostuaren truke. Gaur egun aire librean dagoen museo handi baten gisara irudikatu dezakegu Tolosa».

Berpizkunderantz

Azken Mugako kideen iritzian azken urteetan presentzia galtzen joan da eskulturgintza euskal kulturaren panoraman. «Euskaldunoi ondoen egokitzen zaigun arte espresioa izan da, Euskal Herrian nahiz nazioartean ezagutu gaitzaten bitarteko garrantzitsua». Azken urteetan, ordea, jendeak ezberdin erantzuten duela gaineratu du Olmok: «Arte adierazpide asko dago gaur egun eta gi-

zartean oihartzun handiagoa dute, esate baterako, teknologia berriei zerikusia duten lanek».

Azken Muga elkartearen azkeneko zazpi urteetan arte diziplina ezberdinei tokia egin nahi izan die antolatutako ekitaldi ezberdinetan. Besteak beste, udan Zarateko pagadian aire librean egiten duten ekitaldian eskulturak izan du bere tokia. «Konturatu ginen eskulturagileak ez zirela bat edo bi. Dozenaka eta dozenaka lagun dabilta Euskal Herrian lanean eta gainera egiten ari direna erakusteko gogoz daude. Azkeneko urteetan nonbait ez dute erakusleiorik izan», dio Zeberioek. Gogo horri erantzuten diote, azkeneko hilabeteetan Azken Mugatik antolatzen ari diren ekimenek. Barakaldoko Ignor eraikuntzan ta-





maina handiko eskulturak bilduz erakusketa bat daukate jarrita eta Kilometroak kultur elkartarekin batera, 60 eskulturagiletik gora biltzen dituen erakusketa prestatu dute Ibarra. Aurtengo abuztuan ere, Zarateko pagadian ekitaldi gehiago antolatzeko asmoa dutela berretsi dute Azken Mugatik. «Akaso hemen berritzailea den formatua izan daiteke baina European aspaldikoak dira diziplina ezberdinak bilduz antolatzaren diren aire libreko ekitaldiak. Hemen ez dago horrelako kulturarik, zoritxarrez», azpimarratu du Olmok. «Lantalde ederra dugu, baina gure indarrak mugatuak dira, baita jasotzen dugun sostengu ekonomikoa ere», gaineratu du Zeberio. Dena den, ekarpen hori jarraitzeko gogoz daudela nabarmendu dute Azken Mugako arduradunek.

Isilpeko lan horren emaitzatzat jo dute sortu berri den Euskal Eskultoreen Elkartea. Bertako lehendakaria da Olmo eta lehendakariorde karguan dabil Uxue Lasa billabona-

tarra. «Orain arte ez da izan eskulturagileak elkartzeko gunerik eta lortu dugu, azkenean, guztiak bilduko gaituen egitura bat sortzea», aipatu du Olmok.


Askotariko lanak

Zaratetxan, udako jaialdiaren barruan bildu dituzte azkeneko urteetan eskultura lan ezberdinak. Espaziora egokitutakoak izan dira bertan erakutsi diren artelanak: «Toki txikia denez 20x20x20 zentimetroko neurrian egindako eskulturak eskatu genituen eta 70 artista baino gehiagok hartu zuten parte ekimenean. Gero zabaltzen joan da egitasmoa eta Euskal Herri osoko, iparralde nahiz hegoaldeko eskulturagileak batu dira erakusketara».

1972an Barakaldon jarri zuten erakusketak *La indiscriminada* zuen izena eta Azken Mugatik orain antolatu duten hau ere komisariatzarik gabe egin dute, gaur egun eskulturgintzan dabiltzan era guztietako artisten lanak bil-

«Antxon Elozegi eta Iñaki Epeldereren artean lan handia egin zuten»

MIGEL ZEBERIO



EGITARUA

EKAINAREN 4RA ARTE

17:30 - 20:30. Aranburu jauregian asteartetik larunbatera *Gaurko euskal eskultura* erakusketa.

MAIATZAK 20, OSTIRALA

19:00. Bisita gidatua.

EKAINAK 1, ASTEAZKENA

19:00. *Tolosa eta eskultura.*
Antxon Elosegiri omenaldia hitzaldia.

EKAINAK 4, LARUNBATA

18:00. Topaketa eta eztabaida sei eskultoreekin eta erakusketaren amaiera.



duz. «Dibertsitate handia dago eskulturagileen artean eta hori balore bat da. Gaur egun ez dakigu oso ondo nora doan gizartea, ez dago bidea markatua eta uste dut erakusketa bera horren erakusgarri dela», esan du Olmok.

Aurreko mendeko 60ko hamarkadatik aurrera euskal eskulturgintzaren gidari izan ziren haien eragina gutxitzen ari dela uste du Amezketan bizi den artistak, baina dena den, mostra honetan Txillida edota Oteizarekin batera buruz buru aritu izandako hainbat artisten lanak bildu dituztela dio, belaunaldi horren ondorengo zuzenak izan ziren Rikardo Ugarte, Antxon Mendizabal, Jose Zugasti edota Mikel Lertxundiren lanak. «Euskal eskulturgintza izan da oso sendoa, pisu handikoa, eta harria, egurra eta burdina bezalako material klasikoak erabili izan dira. Garai hartako *Gaur* eta *Hemen* taldeen arrastoa erabat desagertu ez den arren, bide berriak ari dira lantzen

«Eskulturgintza euskaldunoi ondoen egokitzen zaigun arte espresioa izan da»

GUILLERMO OLMO

eskulturagile gazteak». *Gaurko euskal eskultura* erakusketan artista gazte horien lanak bildu dituzte, adibidez. «Unibertsitatetik ateratako belaunaldia da, formazio handikoa eta nabarmena da bertan emakumeen presentzia. Duela 50 urte emakumeei ukatu egin zitzaion esparru hau, eta orain, zorionez, presente dago euren sentsibiltatea». Euskal Eskultoreen Elkartearekin batera, emakume eskulturagileak ordezkatzeko beste egitura bat sortu dute. Uxue Lasa da bertako burua.

Ekainaren 4ra arte ikusgai izango den erakusketarekin bat eginez, gaur, bisita gidatua egingo dute erakusketan zehar eta beste bi ekitaldi berezi antolatu dituzte. Ekainaren 1ean *Tolosa eta eskultura*,

Antxon Elosegiri omenaldia hitzaldia eskainiko du Rikardo Ugartek eta sei eskultoreen arteko topaketa egingo dute ekainaren 4an erakusketak Tolosan egingo duen egonaldiarekin amaitzeko.





EGURALDIA

IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

OSTIRALA.

Giro polita. Egun osoan zehar erdi eta goi-mailako hodeiak ikusiko dira zeruan, goizean hodei baxu batzuk ere, baina oro-korrean ostarteak nagusituko dira eta giro argi eta ederra izango da. Haizea aldakor xamar ibiliko da, goizean hego ukitu batekin, eta tenperatura antzeko balioetan kokatuko da, 25-27 gradutan joaz goia.

LARUNBATA

Bero zakarra. Goizean eta arratsalde erdi arte, erdi eta goi-mailako hodeiak ostarteekin tartekatuko dira eta eguraldi argia izango da. Arratsalde erditik aurrera bero-hodeiak garatuko dira eta ez da bazter-tzen ekaitzen bat lehertzea. Hego-ekialdeko haizea ibiliko da tarteka bolada biziakin eta tenperatura asko igoko da, maximoak 33-35 gradutan errendituz.

IGANDEA

Giro beroa, baina ezegonkorra-goia. Goizean erdi eta goi-mailako hodeien presentzia handi xamarra. Hala ere, ateri egongo da eta giro nahiko argia izango da. Arratsaldean bero-hodeiak garatuko dira eta ekaitzen bat edo beste izango da, non kaz-kabarra ere egin dezakeen. Haizea goizean hegotik ibiliko da, arratsaldean aldiz ipar-mendebaldera egingo du. Maximoak 32-34 gradutan errendituko dira, baina arratsalde amaierarako asko freskatuko du.

ZERBITZUAK

FARMAZIAK

MAIATZAK 20, OSTIRALA

IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria, 24.
943 67 32 74.

MAIATZAK 21, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Iñaki Olarreaga Aranburu.
Korreo kalea, 2.
943 67 20 17.

MAIATZAK 22, IGANDEA

TOLOSA

Egunekoa. Leire Andres Morant.
Zabalarreta lorategiak, 1. 943 67 38 49.

MAIATZAK 23, ASTELEHENA

TOLOSA

Egunekoa.
Edurne Bengoetxea Aiestaran.
Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

EGUNERO

GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:
TOLOSA. LEIRE ANDRES MORANT.
ZABALARRETA, 1. 943 67 38 49.

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20 · Tolosa



Pakita Beristain Iturralde

(Joxe Mari Malkorraren alarguna)

Maiatzaren 18an hil zen, 87 urte zituela,
Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian Bego -



Alabak: Nekane eta Jokin, Josune; anai-arrebak: Lorentxa(†) eta Manuel(†), Rosita(†) eta Joxe Mari(†), Juan, Joxepa eta Nikasio, Maritxu eta Pedro(†), Joxe Mari eta Juani, Pello eta Mila, Miren eta Xanti, Arantxa eta Joxe, Joxemi eta Koro, Jone eta Patxi, Joxe Luis eta Arantxa; ezkon anai-arrebak: Fernanda(†) eta Joxe(†), Joxepa(†) eta Miel(†), Romana eta Juan(†), Julita(†) eta Joxe(†), Maria(†), Felix(†), Katalina eta Joxe Mari, M^a Luisa eta Jesus, Daniel(†) eta Maribel, M^a Teresa eta Miel; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde, otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezteela, GAUR OSTIRALA arratsaldeko SEIETAN, Orexako GURUTZE SANTUA parroki elizan, GORPUA BERTAN DELA egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Oharra: Gorputz beila Tolosako ORIA BEILATOKIAN egongo da,
GAUR OSTIRALA arratsaldeko 17:30ak arte.

OREXAN, 2022ko maiatzaren 20an



ANOETA LASARBE 5

**28 ETXEBIZITZA, GARAJE ETA
TRASTELEKU**
AZKEN ETXEBIZITZA!

2 LOGELA ETA 2 BAINUGELA
BAJUA, 30M2-KO TERRAZA
SUKALDEA BARNE

***GARAJEA ETA TRASTELEKUA AUKERAN**



238.000 €



DATORREN PROMOZIOA

BERASTEGI – ATEGI II

12 ETXEBIZITZA TASATU
3 LOGELA ETA 2 BAINUGELA
GARAJE ITXIA BARNE
EGIN ZURE ERRESERBA!



175.476€-tik hasita

A woman with long brown hair is shown from the chest up, wearing light-colored round glasses with thin teal-colored straps. She is looking slightly to the right. The background is a solid teal color.

mó
C O L O R S

2 MÓ 99€
GRADUATU

+
ukipen-lenteak doan hilabete baterako
+
premium azterketa bisuala

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

www.multiópticas.com   

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen